

con un pequeño papel a *Pieles*, debut de Eduardo Casanova.

REPULSIÓN Según indicó San Sebastián, el objetivo inicial era provocar repulsión y espantar al mayor número posible de espectadores. "El guión era más *light*, pero a medida que vimos la poesía de los fluidos nos vinimos arriba, como Terrence Malick", ironizó el director, que explicó cómo utilizar un potente extintor para simular un géiser de vómito. Debido a lo pringoso de una película llena de salpicaduras, la falta de continuidad en algunos planos es patente. "Es una fiesta del *raccord*. Da para que a Félix Linares le explote la cabeza", señalaron en alusión al gusto del presentador televisivo por los gazapos.

Asimismo, Iglesias consideró "significativo" que su filme coincida en la Semana con *El ataúd de cristal*, otra producción vasca realizada "a la brava" y "al margen de los cauces institucionales". *La noche del virgen* solo ha sido posible gracias al apoyo y solidaridad de mucha gente, por lo que el presupuesto "líquido" de unos 70.000 euros no es real, pues no incluye a la gente que ha capitalizado su sueldo, ha colaborado gratis o ha prestado ayuda de algún modo. En cualquier caso, trabajar así les ha permitido materializar "todas las ideas locas sin responder ante nadie ni tener en cuenta la ortodoxia". "Probablemente será la primera y única oportunidad que tengamos de hacer literalmente lo que nos dé la gana", señalaron.

Aunque aún no ha sido estrenado en España, el filme acaba de cosechar dos galardones en EEUU: el premio a la mejor película en el Nightmares Film Fest de Ohio y el premio a la mejor comedia de terror en Atlanta. En contra de lo que esperaban, el "humor zafio, castizo, desvergonzado y deslenguado" de *La noche del virgen* "está entrando mejor" en el extranjero que en el Estado, donde no han encontrado mucha receptividad; incluso un festival que había seleccionado el largometraje para su sección oficial se echó atrás a última hora: "Nos echaron! ¡Fue surrealista!".

"Es una comedia gruesa de dos horas, con contenido escatológico y desagradable. Sabemos que no se emitirá en *El peliulón* o *La noche de...* Por eso nos reconforta saber que en algunos lugares está gustando. Ahora vamos al Mórbito Film Festival de México y queremos *feedback* positivo o negativo", afirmaron agradecidos a la Semana de Terror por su apoyo: "Si al público de aquí le gusta, será genial, y si no le gusta, todavía será mejor". El director del festival, Josemi Beltrán, calificó la cinta de "propuesta inédita" en el Estado, donde escasean trabajos de tal incorrección política: "Hacen falta apuestas valientes".

EL RESTO DE LA JORNADA El Teatro Principal también acogerá hoy *La autopista de Jane Doe* (17.00), filme de André Øvredal en el que dos forenses examinan a una mujer misteriosa, y *El extraño* (22.30), contundente thriller del surcoreano Na Hong-jin. En el Victoria Eugenia hoy solo habrá una proyección subtitulada al euskera, la cinta noruega *Huset* (Etxea). ●



'Francoren bilobari gutuna' antzezlano lantaldea. Foto: Artedrama

Frankismoa gainditzeko terapia

'FRANCOREN BILOBARI GUTUNA' ANTZEZLANA AZAROAREN 17AN TAULARATUKO DA ARRIAGAN, ETA HILAREN 18AN LEIOAN



Franck Dolosor. Baiona

ERIETXE bateko giro nahasian, medikuak eta gaixok alde batetik bestera dabilta zurrunbilo batean harrapatuta. Tartean daude Iñaki eta Joxean. Batek leuzemia dauka, *Gilles de la Tourette* sindromea besteak. Itxarongelari dagoen btxumutxu aldizkari batean Francoren biloba ageri da.

Francoren bilobari gutuna antzezlanak atzo eman zion hasiera birari, Luhuson. Artedrama, Dejabu Panpin Laborategia eta Le Petit Theatre de Pain konpainiek elkarlanean sortu dute obra, **Azaroaren 17an Arriaga antzokian eskainiko dute emanaldia** eta hurrengo egunean, Leioan.

Euskal jendartearen osasuna, izugarrikerien transmisioa, eta frankismoaren oroimena eta aztarnak dira sorkuntza berriaren ardatz nagusiak. Oro har, mota guztiakoinjustiziak eta jazarpenak aipatzen dituztela argitu du Ximun Fuchs taula zuzendariak, "Ez da iragane-

ra begira dagoen antzerkia oraina aipatzen baitu".

Antzerki berria sortzeko hainbat gogoeta egin dituzte, besteak beste, nazismoak bere auzia izan zuela eta frankismoak ez. Bestalde, Günther Anders filosofo judu alemaniarrek idatzitako gutunetan ere aurkitu dute inspirazioa. Hark deportazio eta estermazio naziaren ardura-dun baten semeari galdetu zion neonazismoaren aurkako borrokan buru belarri sartzea.

Gaiak hurbiletik ezagutzen ditu Fuchsek bere aiton bat judu-alemaniarra baitzen. Senide asko estermazio esparruetan hil ziren Munduko Bigarren Gerra garaian. Beste aitona euskalduna zen eta kartzelara eraman zuten euskaraz hitz egiteagatik. Duela gutxi Frantziako irakasle batek ikasle bat iraindu zuen euskalduna izateagatik. Horrelako gertaerak ere frankismo mota bat direla ohartarazi du Fuchsek.

Frankismoaren aurkako auzi zintorik ez dela inolaz gertatu azpitarratu du Ander Lipus aktoreak. "Gure herriak galnditu ez dituen manuak dauka oraindik, zauriak josi eta sendatzen laguntza eman behar da". Tobera bat balitz bezala, terapia eskaini nahi dute, barre eta negar egitea oso sanok dira eta, bere hitzetan. Artedrama, Dejabu

Panpin Laborategia eta Le Petit Theatre de Pain konpainiek elkarlanean egin duten hirugarren antzezlana da *Errautsak* eta *Hamlet* obren ondok. Hiru urtez elkarlan estua berritu dute astebeteko egonaldiak antolatuz. "Oztopo baino, aukera, aberastasuna eta plazera da Euskal Herri osoko artistak elkartzea", Lipusen arabera. Lan taldearen esanetan, esperientzia konplexuak emaitza baikorra eman du bakoitzak bere tokia aurkitu duelako.

Obrak erritmo handia du aktoreek paper bat baino gehiago eta jantzi aldaketa guztiak taulen gaineko bazterretan egiten baitituzte ikuslearen begi-bistan. Patricia Urrutiak gaineratu du "benetako maratona da, denbora guztian elkarrekin konektatuak egon behar baitugu". Aktore bilbotarraren arabera, proiektua ondu da hilabetez, hilabete eta orain prest dira arreta eta maitasun handiarekin egindako proposamen zintzoa eskaintzeko taulen gainean.

BERTSOLARIAK ANTZERKIGINTZAN *Errautsak* antzezlanean bezala, Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak laguntza eman diete testuak idazten. Hasieratik lan talde sakona izan dela argitu dute durangarrek.

Proposamenek joan etorriko ibilaldi asko egin dute hiru urtez aktore, zuzendari eta bertsolarien artean.

Frankismoaz gain, Karlismoak, torturak eta sorginkerien auziek nolako eragina duten gaur egungo euskal gizartearengan hausnartu nahi izan dituela dio Elortzak. Taulen gainean esaldi indartsuak botatzen ditu maiz Lipusek: "Intxaurren ondok azpian lo egiten duena buruko minarekin esnatzen da".

Iturriagantzat ere begi bistakoa da 1936ko altxamenduak eta ondok etorri zen diktadurak oraindik sendatu ez diren aztarnak utzi dituztela. Gainera, bere ustez, zertan ez duten eragin lasterrago laburbil liteke zertan eragin duten baino. "Espainia transiziorik gabeko herrialdea da eta horren barnean dago hegoaldea. Iparraldea ere ondoan dago" gogoratzen du Iturriagak. Itsu edo elkor egon ez diren guztiak garai desberdinetako errefuxiatuak eta injustiziak ezagutu dituztela Ipar Euskal Herrian ere gehitu du Fuchsek. "Gaur egun ere auziak daude eta Espainiako Auzitegi Nazionalak Iparraldeko militanten aurkako axilo euro agindu eskaerak aurkezten ditu. Berdin du hego edo iparraldekoak izatea, Madrilek euskaldunak dituelako jomugan oro har" deitoratu du Fuchsek.

Euskararen aurkako erasoak ere taulen gainera eramatea erabaki dute, zuzendariak dienez: "Zoritxarrez ez da iraganeko kontua. Ipar Euskal Herrian ez da ofiziala, Nafarroa Garaian oztopo asko dauka eta EAEn gezurrezko normaltasun batean bizi gara. Ez dira iraganeko kontuak badira ikusten ez diren eraztunen oraindik ere". Unai Iturriagak argi dauka: gogoeta gunea izateaz gain sendabide bat ere izan liteke antzerkia. ●